

Irurtzunen, bi mila eta zortziko urriaren zazpian, arratsaldeko zazpiak direnean, Ohiko Bilkura egitearren Irurtzungo Udaleko Udalbatza, legeak agintzen duen moduan deituta, Batzar-gelan elkartu da Juan Jose Iriarte Vitoria alkate-lehendakaria buru dela. Bertan izan dira ondoren aipatzen diren zinegotziak:

Francisco Goicoechea Arbizu
Jose Javier Recalde Maestre
Saray Ongay Garcia
Jose Luis Viñas Estudillo
Jose Peinado Cuesta
Luis Enrique de la Calle Moreno
Maria Nieves Uterga Juango
Eduardo Murugarren Frances
Francisca Arruabarrena Quintana

Eta idazkari naizen hau, Santos Iragui Hualde.

Ez da bertaratu, eta ez du ezin etorria adierazi Arrate Zabalo Ochotorenak.

AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

Bilkurari hasiera emanda, udalburuak deialdiarekin batera banatu den 2008ko abuztuaren 19an egindako Bilkuren Aktari zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion galdetu du. Oharrik egin ez zaionez, aho batez onartu da.

ALKATETZAK HARTUTAKO ERABAKIEN IRAKURKETA

2008ko abuztuaren 20az geroztik Alkatetzak eman dituen Ebazpenak irakurri dira eta, honenbestez, zinegotziak jakinaren gainean daude.

ERRENTAN EMANEN DIREN BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZETARAKO UDAL-LURSAILA SALTZEKO LEHIAKETAREN ESLEIPENA

Irurtzungo Udal Planeko S1-U8 Unitatea birpartzelatzearen ondorioz sortutako 3 zenbakia duen lursaila, Errentan emanen diren babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratua, saltzeari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta, halaber, 2008ko urriaren 3an egindako bilkuran onartutako Kontratazio Mahaiaren proposamena aztertuta, lursaila Adania Patrimonio, SLri esleitzea erabaki da aho batez, bostehun eta hogeita bi mila seiehun eta laurogeita hemeretzi koma hirurogeita hamazazpi euroko -522.699,77 €- behin-behineko prezioan..

2008ko AURREKONTUAK ALDATZEA

2008ko Aurrekontuko bat zenbakidun aldaletari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako Bilkuran onartutako

aldeko proposamenarekin, 2007ko Aurrekontuan ondoren aipatzen den aldaketa hasiera batean onartzea erabaki da aho batez:

- 533.763 "Iturraskarri proiektua" ezohiko kreditua 7.250,00 euroekin gaitzea, eta kopuru berean, hau da 7.250,00 euroan, murriztuko den 4.6 Poltsa Lotesle Juridikoan dagoen soberakinarekin finantzatzea.

NEUMATICOS IRUÑA, SL ENPRESAK AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZEKO HELEGITEAREN BALIOSPENA

Neumaticos Iruña, SL enpresak Alkatetzaren uztailaren 10eko 119/2008 Ebazpenaren aurka, zeinean Eraikuntzen, Instalazioen eta plaka fotovoltaikoak jartzeko Obren gaineko Zerga-kitapena ezartzen baitzen, jarritako berraztertze helegiteari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako Bilkuran onartutako aldeko proposamenarekin, honako hau erabaki da aho abtez:

1.- Neumaticos Iruña, SL enpresak Alkatetzaren uztailaren 10eko 119/2008 Ebazpenaren aurka, zeinean Eraikuntzen, Instalazioen eta plaka fotovoltaikoak jartzeko Obren gaineko Zerga-kitapena ezartzen baitzen, jarritako berraztertze helegitea aintzat hartzea.

2.- Aurreko kitapena kontuan hartuta, Neumaticos Iruña, SLri honek ordaindutakoa itzultzea.

3.- Eraikuntzen, Instalazioen eta plaka fotovoltaikoak jartzeko Obren Zerga-kitapen berri bat egitea; hau da, 731,45 euro (22.098,24 x % 3,31), zeina interesdunak 30 eguneko epean ordaindu beharko baitu, edo, nolana ere, lanak hasi aurretik.

NAFARROA BAI-IRURTZUN BAI TALDEAREN MOZIOA EAE-ANVren ILEGALIZAZIOA DELA-ETA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako bilkuran Nafarroa Bai – Irurtzun Bai Udal Taldeak EAE/ANVren ilegalizazio-prozesuari buruz aurkeztutako mozioa Osoko Bilkurara eramatea onartuta, ondoren aipatzen den testuan duen mozioa irakurri da:

Irurtzungo Udalak honako hau erabaki du:

1. Auzitegi Gorenak EAE-ANV legez kanpo uzteko hartu duen epaiarekiko desadostasuna adieraztea, erabaki horrek erakunde horren eta erakundea osatzen duten, edo botoa eman dioten pertsonen eskubide zibil eta politikoak urratzen dituelako, eta justiziaren instrumentalizazio politikoa agerian uzten duelako; izan ere, Alderdien Legea nahierara erabil baitaiteke, zuzenbidezko estatu demokratiko bati ez dagokiona.

2. Aldarrikatu nahi dugu pertsona orok duela, berdintasunean, bizitza politikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko, eta beren proiektuak

soilik bitarteko baketsuen bitartez defendatzeko, eta aipatu proiektuak gauzatzeko eskubidea, baldin eta euskal gizartearen babesa lortzen badute.

3. Lan egitea hautetsi guztiei dagozkien eskubide indibidualak bermatze aldera.

4. Behin eta berriro errepikatu nahi dugu proiektu politiko guztiak, baita Euskal Herriaren independentzia helburu dutenak ere, ez soilik defenda eta errebindika daitezkeela bitarteko baketsu eta demokratikoen bitartez, baizik eta praktikara ere eraman daitezkeela baldin eta herritarrek, demokratikoki eta bakean, babesa ematen badiete.

5. Adierazi nahi dugu pertsona guztien giza eskubideen defentsa errealia eta konpromisozkoa, eta herri honek bere geroaz libreki eta demokratikoki erabakitzeko duen eskubidea direla herri honetan bizi dugun gatazka politikoaren soluzioari eta bakeari heltzeko oinarriak.

6. Herritar guztiei dei egiten diegu norbanakoaren eskubideak gauzatzuz, normalizazio politikoa lortzeari begira, eta bakea eta askatasuna oinarri izanen dituen euskal Herriaren alde borrokatzen jarrai daitezen.

7. Akordio hau herritarrei eta hedabideei helaraztea."

Irakurketaren ondoren, Iriarte jaunak adierazi du EAE/ANVren esku jartzen duela bere burua legez kanporatzeak ekar ditzakeen ondorioak arintze aldera, eta hautagai guztiei, norbanakoak diren aldetik, dagozkien eskubideak bermatzeko modua finkatze aldera.

De la Calle jaunak eskatu du Auzitegi Gorenak emandako epaia luzamendurik gabe bete dezala Udalak.

Murugarren jaunak, bestalde, adierazi du EAE/ANVko zinegotziek Udal Talde horretan jarraituko dutela bertatik botatzen dituzten arte; izan ere, horretarako izan baitziren hutatuak.

Esku-hartzeen ondoren, mozioa bozkatu da, eta onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde eta Viñas jaunaren, eta Ongay andrearen aldeko botoekin. Kontra bozkatu dute Peinado eta De la Calle jaunek, eta Uterga andreak. Abstentziora jo dute Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak.

ILEGALIZAZIOARI BURUZKO EAE/ANVren PROPOSAMENA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako bilkuran EAE/ANV udal-taldeak bere ilegalizazioa dela-eta aurkeztutako mozioa Osoko Bilkurara eramatea onartuta, ondoren aipatzen den testua duen mozioa irakurri da:

"Aspalditik dugu oso argi gure Estatuaren izaera demokratikoa. Urte luzeak daramatzagu injustiziak eta oinarrizko eskubideen zapalketa pairatzen, baina 'demokrazia zero' horretaz jabetzen ez baginen, azken aldi honetan areago joan dira, beren gabeziak agerian utziz, eta gure ideiak indartuz.

Euskal Herri osoan eta, zehazki, Nafarroan demokraziaren funtsa zertan den argitu digute labor: esku-hartze bortitzak ikusi ditugu, Berriozarko kontzertukoa kasu; ekitaldi politikoak debekatu dituzte; gure eremuan atxiloketa politikoak egin dituzte; eta inora ez doazen tortura-salaketak salatu

dituzte; hori guztia, Iparraldean Batasuna kriminalizatu nahian, eta hegoaldean EAE/ANV legez kanpo uzteko, legeetan adituak direnei lotsa sorrarazten dieten argudio juridikoekin.

Egoera horren aitzinean, Irurtzungo EAE/ANV Udal Taldeak honako mozioa proposatzen du:

1. Udal honek adierazten du Euskal Herriko indar politiko guztiek dutela eskubide osoa, aukera berdintasunean, gure herriaren bizitza politikoan, sozialean eta kulturean parte hartzeko.
2. Udal honek aukera politiko guztiak errespetatzen ditu, eta alderdi politikoak legez kanpo uztea demokraziaren aurkako estrategia, dagoen gatazka elikatzen duen estrategia antzua dela salatzen du, normalizazio politikotik urruntzen gaituena.
3. Udal honek adierazten du ilegalizazioa Euskal Herriaren aurkako eraso dela, eta horren xedea gure herriaren helburua, independentzia alegia, ahultzea.
4. Udal honek ez ditu aintzat hartzen aukera politiko hau aukeratuta, herritarrek beren botoekin adierazi zuten borondatearen aurka doazen legeak edo erabakiak.
5. Udal honek EAE/ANVko hautetsiak aintzat hartzen ditu, eta horien parte-hartze politikoa defendatzeko konpromisoa bere egiten du.
6. Udal honek, alderdien interesen gaineratik, marko demokratikoa gauzatu ahal izateko konpromisoa hartzen du, Euskal Herriko herritarrek beren geroa askatasunez erabaki ahal izan dezaten.
7. Udal honek hartutako erabakiaren berri emanen die Irurtzungo herritarrei eta hedabideei."

Mozioa irakurrita, Iriarte jaunak jakinarazi du Nafarroa Bai – Irurtzun bai Udal Taldeak aurkako botoa emanen duela; izan ere, arestian gai horri buruz aurkeztu duen mozioak (onartua) eskubide guztien aldeko defentsa egiten baitu.

Mozioa bozkatuta, atzera bota da. Aldeko bozka eman dute Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak. Aurkakoa, berriz, Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, Peinado eta De la Calle jaunek, eta Ongay eta Uterga andreak.

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAIren MOZIOA ETArekin ATENTATUAK DIRELA-ETA

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako bilkuran Nafarroa Bai – Irurtzun Bai Udal Taldeak ETAK Gasteizen, Ondarroan eta Santoñan egin dituen atentatuei buruz aurkeztutako mozioa ere Osoko Bilkurara eramatea onartuta, ondoren aipatzen den testuan duen mozioa irakurri da:

"Irurtzungo Udalak:

- Salatu eta gaitzetsi egiten ditu ETAK Santoñan, Ondarroan eta Gasteizen egindako atentatuak, eta elkartasuna adierazten die atentatuek zauritutako eta kaltetutako pertsoneri; bereziki, Santoñako atentatuan hildako Luis Conderen familiari.

- Indarkeria dela-eta, bere arbuio politiko irmoena eta gaitzespen etikoa adierazten ditu, eta hastapen demokratikoen eta pertsona guztien giza eskubideen defentsaren aldeko apustu ukaezina berresten du.
- Udal honek adierazi nahi du atentatuak, indarkeria erabiltzea eragozpen direla Euskal Herriko gizarteak horrenbeste behar duen bakea lortzeko.
- ETari eskatzen dio armak uztea, horren trukean ezer eskatu gabe. ETak bakea zor dio euskal gizarteari. Euskal Herriari egin diezazkiokeen ekarpenik onenak armak berehala uztea, eta gizartearen borondatea errespetatzea dira.
- Euskal Herriak bizi duen gatazka konpondu eta bakea lortzeko, ezinbestekoa da elkarrizketa, negoziazio, akordio eta sakontze demokratiko bidezko jardunbidea. Horretarako, ezinbestekoa da indarkeria desagertzea, eta giza eta gizarte-eskubideak errespetatzea."

Irakurketaren ondoren, Murugarren jaunak azaldu du ez dagoela elkarrizketarako aukerarik, Estatuak ez baitu horretarako borondaterik. Halaber, deitoratu du Nafarroa Bai - Irurtzun Bai Udal Taldeak legealdiaren hasieran Euskal Herriak bizi duen gatazkaren ondorioen inguruan izandako jarrera ikusita, soilik ETaren indarkeriaren aurkako salaketak aurkeztu izana, Estatuak egindakoa alde batera utzita.

Iriarte jaunak erantzun dio Nafarroa Bai - Irurtzun Bai Udal Taldea indarkeria guztien aurka dagoela. Mozioari dagokionez, esan du ETaren atentatuak, eragiten duten gaitzespen etikoaz gain, Euskal Herriarentzako kaltegarriak direla.

De la Calle jaunak, bestalde, esan du mozioaren zati batekin ados egon litekeela, baina adierazi du ez dela nahikoa atentatuak salatzea eta gaitzestea, baizik eta kondenatu egin behar direla.

Esku-hartzeen ondoren, mozioa bozkatu da, eta onartu egin da Iriarte, Goicoechea, Recalde eta Viñas jaunaren, eta Ongay andrearen aldeko botoekin. Kontra bozkatu dute Peinado eta De la Calle jaunek, eta Uterga andreak. Abstentziora jo dute Murugarren jaunak eta Arruabarrena andreak.

UPNren MOZIOA ETAREN ATENTATUEI BURUZ

Aurrekoetan bezala, Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako bilkuran UPN Udal Taldeak Santoñan gertatutako armadako brigada Luis Conde de la Cruzen heriotzari buruz aurkeztutako mozioa ere Osoko Bilkurara eramatea onartuta, ondoren aipatzen den testuan duen mozioa irakurri da:

"ETA talde terroristak Luiz Conde de la Cruz jauna, armadako brigada, hil du Santoñako Patronatu Militarraren kontra bomba-auto bidez egindako atentatuan. Talde terroristaren ekintza kriminal hori dela-eta, honako hau erabaki da:

Lehena.- Udal honek Santoñako Patronatu Militarraren kontra bomba-auto bidez egindako atentatuan armadako brigada Luis Conde de la Cruz jaunaren heriotza gaitzesten du. Atentatuan, halaber, beste militar bat eta Kantabriako hainbat herritar ere zauritu dira.

Bigarrena.- Udalak, halaber, ETA talde terroristak polizia nazionalaren autoan jarritako lapa-bonbaren eta bonba-autoen bidez eginiko atentatuak gaitzesten ditu. Horien helburua, atentatuetan erabilitako lehegai-kopuru altua kontuan hartuta, hildako asko eragitea zen, bai Gasteizen, baita Ondarroan ere.

Hirugarrena.- Udalak elkartasuna adierazten die ETAREN zentzugabekeriaren eta erokeriaren biktima Luis Conde de la Cruz jaunaren familiarrei, baita azken atentatuetan izandako biktimen familiarrei eta lagunei ere; Polizia Nazionalekoei, Armadakoei, Vital Kutxakoei eta Ertzaintzakoei. Horiek indarkeriaren kontra, eta herritarren eskubideen eta askatasunen alde egiten ari diren lana babesten dugu. ETAK, azken ekintzekin, Zuzenbidezko Estatuko estamentu guztiak, eta, oro har, herritar guztiak hatzen ditu jopuntu. Horien guztien kontra zuzentzen ditu atentatuak, gizarteari al bait kalterik handiena eragin nahirik.

Laugarrena.- Udalak irmo eutsi nahi dio indar politikoen batasunak, instituzioen laguntzak eta herritarren parte-hartzeak ETAREN porrota ekarriko duelako uste osoari. Justizia-auzitegien eta segurtasun-indar eta kidegoen ekinbidea argitzen duen gure Zuzenbide Estatuaren printzipio demokratikoen irmotasuna, eta herri honetako herritarrak ordezkatzeko dituzten instituzioak ETAKo hiltzaileei nagusituko zaizkie."

Irakurketaren ondoren, Iriarte jaunak adierazi du erabilitako hitzak egokienak iruditu ez zaizkion arren, ados dagoela mozioaren lehen hiru puntuekin. Hala ere, esan du Nafarroa Bai - Irurtzun Bai Udal Taldeak mozioaren kontrako botoa emanen duela, laugarren puntuan onartezina iruditzen zaion etekin politikoa atera nahi delako. Bere iritziz, ordena publikoko esku-hartze anitz salatzeak dira, eta, beraz, ezin die bere babesa eman. Neurri berean, ezin die auzitegiei babesa eman Alderdien Legearekin egiten duten erabilpenagatik.

Murugarren jaunak adierazi du EAE/ANV Udal Taldeak ere kontrako botoa emanen duela. Bere iritziz, Segurtasun Indar eta Kidegoak indar zapaltzaileak dira euskal Herrian. Auzitegiei dagokienez, funtsean frankismoan beste izen batzuekin zeudenen jarraipena direla esan du. Bukatzeko, esan du UPNk (garai bateko frankistak kide dituen alderdia) gaitzespenak plazaratzea iseka dela, gauza izan ez denean berrogei urtez iraun zuen erregimen hiltzaile hark egindako ankerkeria guztiak aitortzeko eta salatzeke.

Izandako parte-hartzeen ondoren, mozioa bozkatu egin da, eta atzera bota da. Aldeko bozka eman dute Peinado eta De la Calle jaunek eta Uterga andreak. Aurkakoa, berriz, Iriarte, Goicoechea, Recalde, Viñas, eta Murugarren jaunek, eta Ongay eta Arruabarrena andreak.

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAI UDAL TALDEAREN MOZIOA LAN-MERKATUAREN PREKARIZAZIOAZ

Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako Bilkuran onartutakoaren arabera, Nafarroa Bai – Irurtzun Bai Udal Taldeak sustatutako honako mozioa onartzea erabaki da aho batez:

"Udal honek prestatuko dituen baldintza-orri guztietan sartzea Udal honek esleituiko dituen kontratu guztien esleipendunekiko ondoko obligazio-klausula:

- Esleipendunaren lanbide-izaerako betekizunak.

Inoiz ezingo dira aldi baterako lan-enpresen (ABLE) bitartez kontratazioak egin.

Era berean, ezin izanen dira azpikontratatu hirugarren enpresari edo entitateri Udalak esleitutako lanak edo zerbitzuak."

Bozkatu aurreko eztabaidan, Iriarte jaunak esan du badakiela zaila dela esleipendunei ezartzen zaizkien betebeharrak kontrolatzea, baina bere iritziz, argi utzi beharra dugu gaur egun dagoen egonkortasun gabeko lan-egoera aldatu beharra dagoela.

Murugarren jaunak ere adierazi du zaila dela mozioan ezarritakoa kontrolatzea. Horrez gain, bere iritziz badira kontuan hartu eta salatu beharreko beste hainbat afera lan-arloan; besteak beste, laneko istripuak.

NAFARROA BAI - IRURTZUN BAI UDAL TALDEAREN PROPOSAMENA MEMORIA HISTORIKOARI BURUZ

Puntu hau mahai gainean geratzen da, akordio-proposamen zehazturik ez dagoelako.

IRURTZUNGO UDALAK SAIHESBIDEAREN INGURUAN EGINDAKO PROPOSAMENARI NAFARROAKO GOBERNUAK ERANTZUTEA ESKATZEA

Hirigintza, Etxebizitza, Partzuergo eta Ingurumen Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako Bilkuran onartutako proposamenaren arabera, aho batez erabaki da Nafarroako Gobernuari eskatzea erantzun diezaiola Udalbatzak 2008ko martxoaren 4an egindako Bilkuran hartutako erabakiari; horretan, saihesbidea egiteko alternatiba bat jaso genuen, zeina Herri Lanen Departamentuari aurkeztu baikenion, horrek azter zezan.

Erabakia hartu aitzin, Murugarren jaunak Saihesbidearen aldeko Plataformarekin landutako saihesbidearen inguruko ekimen-programaz galdetu du.

Iriarte jaunaren iritziz, Saihesbidearen aldeko Plataformarekin beste bilera bat egin beharko da, Saihesbidearen inguruan izan diren gertakarien bilakaerak aztertzeko, eta jarduera berriak proposatzeko.

EUSKARA ARLORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Euskara ikastaroak egiteko diru-laguntzak emateari buruzko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Euskara Batzordeak 2008ko irailaren 17an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, ondoren aipatzen

diren diru-laguntzak ematea erabaki da 2008ko Aurrekontuko 4510.48201 partidaren kargura:

- 133,62 euro Javier Beraza Loidiri.
- 133,62 euro Margarita Ruiz Marini.
- 133,62 euro Jose Angel Unzueta Martinezi.
- 133,62 euro Maria Eugenia Gurucelain Elustondori.
- 142,80 euro Jose Javier Recalde Maestreri.
- 164,20 euro maite Beraza Loidiri.
- 245,60 euro Jesus Mancicior Iriarteri.
- 133,62 euro Erwan Maori.
- 133,62 euro Manuel Angel Viso Carcar-i.
- 526,40 euro Patxi Xabier Goñi Lazkanori.
- 62,40 euro Iñigo Amezqueta Azcarateri.

KULTURA ARLORAKO DIRU-LAGUNTZAK

Pikurock jaialdia egiteko Iskidi Ihoaldun Taldeari diru-laguntza emateko espedientean dagoen dokumentazioa aztertuta, eta Ogasun, Industria, Langileak eta Barne Eraentza Batzordeak 2008ko urriaren 2an egindako Bilkuran onartutako proposamenarekin, aho batez onartu da eskatzaileari 2.000 euroko diru-laguntza ematea, 2008ko Aurrekontuko 4515.48202 partidaren kargura.

BATZORDEEN INFORMAZIOA

Ez dago.

GALDE-ESKEAK

Murugarren jaunak galdetu du zein diren Udal Liburutegia ixtearen arrazoiak.

Iriarte jaunak azaldu du orain arte liburutegiaren ardura zuenak beste liburutegi batean lortu duela lanpostua, eta Irurtzungoa bete gabe dagoela. Badirudi, inor ez dagoela lanpostu hori betetzen interesaturik.

Idatziz eskatu beharko litzateke pertsona bat izendatzea al bait azkarren lanpostua bete dadin.

Aztergai gehiagorik ez dagoela, eta arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean, udalburuak bilkura amaitutzat jo du. Idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren Egiaztapena egiten dut.

ren Egiaztapena egiten dut.